

Ramon Etxezarreta

PSE-EEKO ZINEGOTZIA DONOSTIAN

Mondragoeko erretolika(k)

Lurrarekin berdintzen zaio arima, politika guztien gainetatik eta azpietatik, azken hilabete t'erdiko Arrasateko gorabeheri humanitate apur batez begiratzen dion orori. Edozeinenak direla begiak edozein dela bere iritzi politikoa.

Nekeza egiten zaie Inozentzia Galparsoro alkatetzatik kendu behar dutenei beren nahikari eta apeta politikoa estali behar den lekuan estaltzea eta aukera politiko horrek ematen dien soka luzatzen uztea. Erre ke erre dabilta —gabilta—, eta nahi dute ibili, oker dabilenari oker dabilela eta zuzen dabilenari oker zebilela. Edozein luzamenduk, edozein argudio erretorikok, edozein jardun irreflexibok, hala nola gobernu programarik hoberenak sinesgarritasuna kentzen dio giza eskubideen defentsari eta gutxieneko demokratikoari.

Alkate sozialista bat, PSE-EEkoa alegia, nahi izatea ikusten duenak, dela abertzaletakoa, dela ezker abertzaletakoa, Ezker Batukoa, PPkoa edo PSO-Ekoa giza eskubideez ahazten ari da eta herri honetan politikagintzari gertatzen zaion duintasun apurra errekaratzen ari da.

Zinegotzi ohi bat, zinegotzi ohi izateagatik, eraila izatea eta horren aurrean mutu geratzea, ez da giza eskubideak defendatzea, giza eskubideak erasotzea da. Eta horrelako jendearekin gobernu bat osatzea, ez haustea, edo hausteko programa alternatibo bat eskatzea giza eskubi-



DANI BLANCO

deak atzentzea da, aintzat ez hartzea. Tiropean burumakur gabiltzanok eta ibili daitezkeenek ez genuke zalantzarik izan behar.

Errazegi nahasten ditugu politikarekin giza eskubideak, errazegi atzentzen ditugu giza eskubideak edozein politikakeriaren azpira, errazegi geure komenientzien pera. Iruditzen zait gure gizartean serioago hartzen dugula zirkulazio kodea eskubide horiek baino.

Sutsu defenditzen ditugu guztiok, gartsu azaltzen gara eskubide horien defentsan, zenbat eta urrutiagokoak orduan eta gartsuago. Hain da erraza karitatea, hain gaude ohituak on egitera. Ez dago eskubiderik Tibetentz gertatzen ari dena gertatzeko hain herri bakezale eta baketsua, a zer nolako eskubide urraketak, zein egoera errukarria. Nola diren herrialde handiak, Espainia eta Txina eta, herrialde txikiak, zer beldur diguten jende txiki, xume, apal eta zintzoari! Nola zanpatzen dituzten gure eskubideak!

Tibeteko bi milioi t'erdi pertsonen eskubide urraketak ikusi eta Txinako mila eta hirurehun milioi lagunena ikusten ez dituenak badauka nonbaiten okerra edo ez daki oso ondo zer diren giza eskubideak.

Zenbat Mondragoe, zenbat erretorika, zenbat kuneta, zenbat pertsona banan-banan baina tirokatua, zenbat itsutasun, zenbat mututasun, zenbat... aspertzen hasita nago herri zintzoekin. ■

«
Zinegotzi ohi izateagatik eraila
izatea eta horren aurrean mutu
geratzea giza eskubideak
erasotzea da
»

TXANDAN
Castillo Suarez



Sándor Márai idatzi zuen idazleen bakardadean ez dutela tokirik

lagunen edota amoranteen arimek. Haren ustez, idazleek egia bilatzen dute, baina haiendako askatasun esparru bat gordetzen dute, inorekin konpartitzen ez dutena. Sekretu guztiak idazki bihurtzen zituen Márai, bizitzak eskaintzen zion guztiari buruz idazten zuen, mugarik gabe. Hala ere, bazuen "sektetu" bat inori agertu ez ziona. Artea deitzen diote batzuek.

Etengabe ari gara hitzak ahoskatzen, iritzia ematen, ekintzak burutzen, aldekotasunak eta aurkakotasunak

Bakardadeaz

adierazten. Horiek guztiak, ordea, garenaren isla besterik ez dira. Eta sakonean dugun hori, ezkutuan mantentzen duguna, ez da inoiz aldatuko, gainera. Horregatik, nahiz eta pertsona bati buruz dena dakigula iruditzen zaigun, egiazki ez dakigu ezer ere.

Tarteka saiatzen dira gure bakardadea urratzen. Gu ere, nahita ala nahi gabe, besteen sekretuetara hurbiltzen saiatzen gara. Batzuetan lortzen dute; batzuetan lortzen dugu. Alabaina, batzuen sekretuak ez dira idazteko modukoak, batik bat kontatzea erabaki dutenenak. Gure sekretua kontatzea erabakitzen dugunean gaude ahulen, esan izan denaren kontra. ■